

 IKUSMIRA

KULTURA MUGAK APURTZEN

Asko kostatzen zaigu komunikabideoi kultur gaiak lehen orrira edo titular handietara eramatea. Ustez garrantzitsuagoak diren etengabeko albisteen zaparradaren erdian, beste begirada eta patxada bat eskatzen duten gertakariak bigarren lerroan geratzen dira sarri askotan. Baina, era berean, sakon hausnartuz gero, nekez aurkituko ditugu inguruan etorkizuneko erronkak gure sortzaileek bezain egoki planteatzen dituzten pertsonak. Hemen behean begiratu besterik ez duzu: Estibaliz Urresola, Jaione Camborda, Julio Soto, Nerea Ibarzabal... Askoz zabalagoa den talde bateko lagin txikia besterik ez da, baina garenaren eta izan nahi genukeenaren arteko zubiak eraikitzen laguntzen digute beren lanarekin.

Asier Aiestaran



Jagoba Manterola | FOKU

> JAIONE CAMBORDA

2023a euskal emakume zuzendarien urtea izan dela esatea gehiegizkotzat joko du agian norbaitek, baina, Estibaliz Urresolak lortutako sari guztiez gain, Zinemaldian Jaione Camborda donostiarraren “O corno” filmak irabazi zuen Urrezko Maskorra. Isabel Hergueraren “El sueño de la sultana” filmak euskal zineari eskaintzen zaion Irizar saria ere irabazi zuen.



Gorka Rubio | FOKU

> 20.000 ESPECIES DE ABEJAS

Estibaliz Urresolak zuzendutako “20.000 especies de abejas” izan da zalantzarik gabe urteko fenomeno nagusia zinema munduan. Urtea indartsu hasi zuen Berlingo jaialdian, Sofia Oterok aktore onenaren saria jaso zuelako, eta gero beste hainbat errekonozimendu jaso ditu, Forque sarietan edo Malagako jaialdian, esaterako. Apirilean estreinatu zen aretoetan arrakasta handiz.



Aitor Karasatorre | FOKU

> JULIO SOTO

Ohi denez, urte amaieran iritsi dira bertsolaritzan ekitaldi sonatuenak. Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala abenduaren 2an jokatu zen Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, eta txapela Julio Sotok jantzi zuen seigarren aldiz. Eneko Lazkoz eta biak iritsi ziren aurrez aurreko lehiara, eta, puntuetan tarte txikia egon bazen ere, garaipena Gorritikoak lortu zuen. 2.350 bertsozale eta giro paregabea.



Oskar Matxin Edesa | FOKU

> NEREA IBARZABAL

Abenduaren 16an heldu zen Bizkaiko Txapelketako finala, Miribillako Bilbao Arenan. Nerea Ibarzabal izan zen txapelduna bigarrenetara jarraian, aurrez aurrekoan Jone Uriarekin saio aparta borobildu ondoren. Lau mila pertsona bildu ziren finala ikusi eta entzuteko. Xabat Gallettebeitia, Gorka Pagonabarraga, Onintza Enbeita, Oihana Bartra, Aitor Etxebarriazarraga eta Aissa Intxaustik osatu zuten zortzikotea.



Maialen ANDRES | FOKU

> ZUMETAREN MURALA

Jose Luis Zumetaren Usurbilgo mural famatuak 50 urte bete ditu 2023an. Udalak eta Zumeta Arte Estudioak urteurrena ospatzeko hainbat ekimen antolatu dituzte urtean zehar. Bi erakusketa izan dira ikusgai, bat sortze-prozesuari buruzkoa eta bestea Zumetak Usurbilekin izan zuen harremanaren ingurukoa, eta jai nagusia irailaren 23an egin zen. Irudia egun horretakoa da.



Gorka RUBIO | FOKU

> GUGGENHEIM URDAIBAIN

Hasiera batean astakeria hutsa zirudien ideia, Urdaibain Guggenheim museo bat irekitzearena, errealitate bilakatzeko bidean da. Bertako biztanleen iritzia jaramonik egin gabe eta proiektuaren aurkako protesta jendetsuei entzungor eginez –irudian, urriaren 28koa–, EAJ eta PSE asmoa gauzatzeko beharrezkoak diren urratsak egiten ari dira apurka-apurka.



Aritz LOIOLA | FOKU

> EUSKADI LITERATURA SARIAK

Ez dute erakusten euskal literaturaren osotasuna, baina Euskadi Literatura Sariak sorkuntza lan horren zati bat goraipatzeko balio dute gutxienez. 2023an Arantxa Urretabizkaia, Alejandro Morellon, Patxi Zubizarreta, Maialen eta Joxe Mari Berasategi, Joseba Larratxe, Miren Billelabeitia eta Ander Izagirre izan dira irabazleak kontuan hartzen diren maila desberdinetan.



Patxi BELTZAIZ

> ITXARO BORDA

2022ko azaroan euskaltzain oso izendatu zuten Itxaro Borda eta, ia urtebete beranduago, sarrera-hitzaldia irakurri zuen idazle baionarrak bere jaioterrian. Mugaren kontzeptuaz, euskararekin duen harremanaz eta euskal idazle gisa izan dituen zenbait bizi-penez aritu zen lapurtarra, bere ibilbide luzeari omenaldia egiteko balio izan zuen ekitaldi hunkigarrian.